

# Denbora-

Erantzunak: 2.-Arrain, ogitartekoa eta giltza dira falta diren hitzak. 3.-e.





## 1 Ezberdintasunak

Arrain txikiak, handiak, kolore bakarrekoak, koloretsuak... denetarik dago Aquariumean. Bi argazki egin ditugu. Bien artean zazpi alde daude. Zein?

## 2 Osatu esaldiak

Hiztegia ikasteko ariketa dibertigarria asmatu du irakasleak. Marrazkiari dagokion hitza idatzi, eta esaldi osatu behar da.

Gure herriko errekan  asko dago.
Nire amak  prestatu dit merienda jan dezadan.
Etxeko  erori zait praktetik eta galdu egin dut.
_____
_____
_____

## 3 Itzalak



Sugeei argazkiak ateratzea gustatzen zaio Saioari. Hona mendian ikusi zuen azkena. Itzal hauetatik zein da ikusitako sugearena?



# - pasak

## 4 Aurkitu irudian

San Sebastian eguneko danborradarako txapelaren bila ibili zen Irune. Dendan hiru txapel mota berdin zeuden. Zein?



## 5 Kopiatu laukiz lauki

Udan mendian ikusitako lorearen marrazkia bidali digu Edurnek. Lore berdina marraztuko al zenuke?

## Jolasa

### Tren ibiltaria


Asmatuko ote du trenak geltokirako bidea? Gidari on baten laguntza eskertzekoa izaten da beti horrelakoetan



1 Marraztu lurrean trenak egin behar duen bidea: hasierako puntutik geltoki nagusira. Geltoki nagusia biribil handi bat izango da, bagoi guztiak sartzeko modukoa.

2 Zeintzuk dira bagoiak? Jokoan parte hartuko duten jokalaria. Lagun bakoitza bagoi bat izango da. Azken jokalaria izan ezik, gainerako guztiak begiak estaliak izango dituzte. Azken lagun hori izango da trenaren gidaria.

3 Trena gidatzeko, hainbat keinu egin behar dizkio gidariak aurreko lagunari. Bagoiek elkarri igorri beharko diote gidariaren agindua. Aurrerantz egiteko, buruan jarriko dio eskua atzekoak aurrekoari. Eta ezkerreko sorbalda ukitzen dion aldiro, bagoiak ezkerrean



egingo du; eskuineko sorbaldan eskua jarriz gero, berriz, eskuinerantz. Horiek oinarritzko aginduak dira, baina jokalarien artean beste hainbat arau finka daitezke, trenak atzerantz egiteko edo azkarrago joateko, esaterako.

4 Arau guztiak finkatuta daudenean, trenak bere bideari ekingo dio. Ea zenbat denbora behar duen trenak geltokira iristeko.